



Iñaki Mendiguren

◆ ITZULTZAILEA

Ez nau izutzen (bizitzako) negu hurbilak...

J. HOGEITAKA URTEKO mutil gaztea da, euskal herri-tarra, eta kirolari amorratua zen, asko ez dela Albo-ko Esklerosi Amiotrofikoa diagnostikatu zioten arte. Dagoeneko oso ezinduta, heriotza eta heriotza besterik ez omen du erregutzen. Baina ingurukoek ezin irentsi erabakia eta lasaitzeko eskatzen diote, onartzeko bere egoera.

Gure artetik joandakoak gogoratzeko egunetan gaudelako kon-tatu dut hori. Eta heriotza ez dela-ko hildakoen afera, baizik eta batez ere biziona; zerbaitek bereizten bagaitu gizakiok beste abereen-gandik hilkortasunaren kontzientziak bereizten gaitu. Eta heriotza-ren beldurrak azaltzen du ongien zergatik behar izan duen gizakiak bere erlijio edo filosofietan arimen transmigratio edo berraragiztape-na, arimen hilezkortasuna, hilda-koen piztuera eta abar asmatu.

Izan ere, dagoenik eta kolperik gogorrena da gure “ego”arentzat, ume-umetatik neke handiz eraikitako “fikzio” horrentzat, bat-batean desagertzea! Eta ez du egoera asko hobetzen gure artean azkenaldian heriotza berriro tabu bihurtu izanak; saiatzen gara gugandik urruntzen, isiltzen, ezkututzen... baina alferrik! Niretzat bi ariketa badira gai honetan lagungarri: bata, egunero minutu batzuk ematea Herio besarkatu eta berarekin adiskidetzen... biharamunera arte itxa-

ron dezala eskatuz! Egunean zehar bakea ematen du gero. Eta bestea, gure egoa puztu ordez, airea kentzen saiatzea; izan ere, itsaso zabaletik sorturiko ola-tuak bezala gara, urtetxo batzuk hondartzan jolastu eta berriro itsaso zabalera itzuli beharrekoak. Gure egoak ez duela ur-masa handi horretan nahastu nahi? Ez, ez du nahi, “baina hilkor sortu ginen eta zer erre-medio” *Odolaren mintzoan* Xalbado-rrek dio.

J.-ren kasua kontatu zigunak beraren alde otoitz egiteko eskatu zigun, bere egoera onartu eta kema-na izan dezan. Baina nik (eta beste askok) ezin diogu jada, umetan bezala, jainko ahalguztidunen bati errezatu. Hala ere, goizero izaten dut J. gogoan, eta eskatzen diot Bizitzari egin dadila J.-ren boronda-tea lurrean behintzat, ez baitago inon gizakiari heriotza duina ukatu-

ko dion jainkorik. Geure bukaeraren kontrola geure esku izateak ere laguntzen du heriotzari beldurra gal-tzen. “Ez nau iluntzen baratzatik / azken loreak biltzeak / ... / amets betezko loa baitakar / behin betirako hiltzeak” (X. Lete/M. Laboa).

PS: Testu hau idatzita zegoela iritsi da albiste: J.-k lortu du bilatzen zuen bakea, ingurukoei ere ez diet gutxiago opa! ■



Dagoenik eta kolperik gogorrena da gure “ego”arentzat, ume-umetatik neke handiz eraikitako “fikzio” horrentzat, bat-batean desagertzea!



Moyua

hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com



KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta

Legatz-solomoa plantxan

(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu